



Basurtuko Kaputxinoen kalea, 2
48013 Bilbao

Tel. 94 656 30 00
Fax: 94 656 30 95
www.eitb.eus

EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ETA HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN (HABE) ARTEAN EMANDAKO HITZARMENA

Bilbon, 2024ko uztailaren 9an.

Alde batetik,

Jokin AZKUE ARRASTOA jauna, HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN (aurrerantzean **HABE**) zuzendari nagusia, haren izenean eta ordezkari (HABEREN IFK:Q-2040002-D; helbidea: Vitoria-Gasteiz kalea, 3 zenbakia, 6. Pisua, Donostia).

Eta bestetik,

Andoni ALDEKOA de la TORRE jauna, EUSKAL IRRATI TELEBISTAKO Zuzendari Nagusia, haren eta bere sozietate kudeatzailea de EITB Media SAUren (aurrerantzean, EITB eta EITB Media, hurrenez hurren) izenean eta ordezkari jardunez; biak batera, EITB.

Aurrerantzean, "aldeak" esango zaie HABE eta EITBri.

Bi ALDEEK lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzeko legez gaitasun nahikoa dutela aitortu diote elkarri, eta horretarako,

AZALTZEN DUTE

- I. Maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen bidez, Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoa sortu zen, eta euskara eta euskal kulturaren zabalkundearen eragile gisa onartzen zitzaion zeregin horretan. Helburuen artean, euskal kulturaren sustapena eta hedakuntzari zabalkundea ematea, eta Euskara suspertzea eta indartzea ditu EITBk.
- II. Aipatutako 5/1982 Legearen 3. artikuluan aurreikusten denaren arabera, EITBk zenbait printzipiori atxikita garatuko du bere zerbitzu publikoaren funtzioa, horien artean, euskararen eta euskal kulturaren sustapena, programazioaren oinarritzeko printzipioak euskararen erabilerako ezarri, Euskal Autonomia Erkidegoko irratitelebistako euskarazko emanaldien eskaintza orokorrean oreka-beharra kontuan hartuta.

- III. Azaroaren 25eko 29/1983 Legearen bidez sortu zen HABE, helduen alfabetatzera eta berreuskalduntzera zuzendua, ahalik eta euskal hiztun-kopururik handiena lortzeko helburu nagusiarekin. Horretarako, besteak beste, egitarau bereziak ezartzearen egitekoa aitortu zitzaion, eta HABEren Glotodidaktika sailari, egun Hizkuntzaren Didaktika zerbitzua denari, euskararen irakaskuntzarekin lorturiko baliabide eta metodologiaren garapena eta helduen euskalduntzerako curriculumak egitea eta ikasketa-planak lantzea.
- IV. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua ezartzen du hitzarmenak egin daitezkeela administrazio publikoen, lotutako edo mendeko organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen artean, edo zuzenbide pribatuko subjektuekin, xede komun bat lortze aldera.
- V. Bere sorrera-legearen esparru horretan eta ahalik eta material didaktikorik egokienak eskaintzeko zereginen, HABEk helduen euskalduntzerako INGURA ikas-ingurune digitala abian jarri du, eta EITBk erakusteko interesa dauka.
- VI. EITBk, euskal kulturaren sustapenari eta hedakuntzari zabalkundea eman eta Euskara suspertu eta indartzeko helburu horretan, aipatu materialen eskubideak izan nahi ditu eta HABEk lagako dizkio EITBri, hitzarmen honetan zehaztutako baldintzen arabera.
- VII. ALDEEK, beharrezko lege-gaitasuna elkarri aitortuta, esku hartu duten moduan hitzarmen hau izenpetu dute, klausula hauei loturik

ITUNAK

LEHENA: HITZARMENAREN XEDEA.-

Hitzarmen honen bidez, HABEk helduen euskalduntzerako INGURA ikas-ingurune digitala jarriko du EITBren esku, hurrengo itunean zehaztutako baldintzen arabera.

INGURA euskara online ikasteko ingurune digitala da, edozein gailutatik, noiznahi eta nonahi euskara eroso eta malgu ikasteko sortua. INGURA ingurune eleaniztuna da. Lau hizkuntzatan

aritzeko aukera ematen du: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, eta A1 mailatik C1 mailara bitarteko ikastaroak eskainiko ditu.

Ikastaro hauek Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Curriculumaren ildo metodologikoei jarraikiz diseinatu dira, ikuspegi komunikatiboan oinarrituta eta ekintzara bideratuta. Horrenbestez, ikasleak mailaz mailako hizkuntza-komunikagaitasuna lortzeko, taldean nahiz bakarka, ulermen trebetasunak, ekoizleak, elkarreragina eta bitartekotza jarduerak eta estrategiak landuko ditu INGURA ikastaroetan.

BIGARRENA: ESKUBIDE LAGAPENA.-

HABEk utzitako eduki eta materialak EITBk eskaini ahal izango ditu bere hedabide eta plataformetan, HABEren egiletza aitortuta.

Honako hauek dira bideoen ezaugarriak:

- a) INGURA bideo guztiak 2025eko urte hasierarako egongo dira prest.

Jadanik dauden BIDEOAK 60 bideo dira. Maila: A1, eta 4 hizkuntzetan azpidatzita daude.

- Lehenengo partea: 3 minutuko fikzioa, Antton Telleriak idatzita. Eguneroko bizitzan euskara erabiltzeko egoera desberdin planteatzen dira, eta hainbat euskal aktorek hartzen dute parte.
- Bigarren partea: fikzio hori oinarritzat hartuta azalpena, 5 minutu. Aurkezleak: Xabi Ormazabal eta Oihana Maritorea. Oso era berritzaile eta modernoan grabatuta daude.

Beraz, guztira 60 bideo dira, 8 minutukoak.

- b) Horretaz gain, 60 “bideotxo” daude (minutu 1 baino laburragoak) sare sozialetan partekatzeko.
- c) A2 mailako bideoei dagokionez, 2024ko udazkenean, 80 azalpen-bideo eta sare sozialetan zabaltzeko beste 80 bideo labur ekoizteari helduko zaio. Hartara,

2025-2026 ikasturterako, fikziozko A2ko 80 bideoekin batera, maila osatuta geratuko da.

HIRUGARRENA: MATERIALA.-

HABE beraren ardura izango da materiala EITBren esku jartzea.

Material bidalketari lotutako gastu teknikoak ondorioztatuko balira HABErentzat, honek, aldi berean, aukera izango du kantitate hori EITBri erreklamatzeko.

LAUGARRENA: IRAUPENA.-

Hitzarmen honen indarraldia 2026ko abenduaren 31ra arte luzatuko da bere sinadura datatik kontatzen hasita.

BOSGARRENA: JARRAIPENA.-

Jarraipen Batzorde bat eratuko da Hitzarmen hau behar bezala garatzeko, eta Hitzarmen hau behar bezala interpretatzeko eta gauzatzean sortzen diren zalantzak argitzeko. Batzorde hori izango da Hitzarmen honen garapenean batera jarduteko mekanismoa.

SEIGARRENA: DATUEN BABESA.-

EITBk adierazten du, Datuen Babeserako indarreango legediari jarraiki, dokumentu honetan dauden datu pertsonalak, soilik, kontratu honen exekuzio egoki batetarako erabiliko direla. Datu horiek ezin izango dira hirugarrenen esku jarri kaltetuak izan daitezkeen pertsonen aurretiazko berariazko baimenik ez badago.

Datu pertsonal horien erabilera baimentzen duena EITB taldearekin sinatutako akordio bera da. Hori dela eta, datu horiek indarreango merkataritza eta zerga legediak ezarritako epeetarako gordeko ditu EITB taldeak.

Informazioaren hartzailerak eta datu tratamenduaren erantzulea EITB da. Beraz, Euskal Irrati Telebistaren aurrean bere datuen tratamenduari buruzko irispide, zuzenketa, ezerezte, mugapen eta datuak transferitzeko eskubidea erabili nahi duenak honako posta elektronikoko helbide honetara zuzendu behar du bere mezua: dbo-dpd@eitb.eus. Gainera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (DBEB) aurrean www.avpd.euskadi.eus erreklamazio bat

aurkeztu ahal izango da.

Halaber, HABEk adierazten du, hitzarmen honen arabera ematen zaizkion datuei dagokienez, informazioaren hartzailea eta datuen tratamenduaren arduraduna dpd-dbo@euskadi.eus dela, eta erakunde horrek soilik erabiliko dituela datu horiek hitzarmen honetan adostutakoa betetzeko.

ZAZPIGARRENA: EZ-BETETZEA.-

Alderdietako edozeinek hitzarmen honetan aurreikusitako betebeharren bat betetzen ez badu, beste aldeak eskubidea izango du behar bezala bete dadila eskatzeko, edo, bestela, hitzarmena suntsiarazteko. Nolanahi ere, bi kasuetan, dagozkion kalte-ordainak eman ahal izango ditu.

ZORTZIGARRENA: HITZARMENAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA.-

Hitzarmen hau sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 legearen arabera kudeatuko da (bertako 47 artikulutik 53 artikulura bitarteko arauen arabera). Hitzarmenaren exekuzioan gerta daitezkeen zalantzak aipatutako 40/2015 lege horren eta Zuzenbide Administratiboaren argitan interpretatuko dira.

Hitzarmen honen ondoriozko edozein auzi konpontzeko, bi aldeak Bilboko auzitegien jurisdikzioaren eta eskumenaren pean jarri dira.

Eta ados daudela adierazteko, bi aldeek kontratu honen bi ale sinatu dituzte, helburu bakar horretako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

//**//

Izpta.: Jon Andoni ALDEKOA de la TORRE

EITB

Izpta.: Jokin AZKUE ARRASTOA

HABE